

16/2022 EBAZPENA, ABUZTUAREN 2KOA, BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIARENA, BORTZIRIETAN SOLASEAN PROGRAMA GARATZEKO, ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO ZERBITZU KONTRATUA FEDERACIÓN TOPAGUNEA EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOARI BEHIN BETIKO ESLEITZEN DIONA.

Ikusirik 2022ko uztailaren 26ko Bortziriako Euskara Mankomunitateko lehendakariaren 15/2022 Ebazpenaren bidez Solasean programa garatu, antolatu eta kudeatzeko zerbitzu kontratua Federación Topagunea Euskara Elkartearen Federazioari behin behinean esleitu zitzaioa.

Ikusirik elkarrekin lizitazioaren plegu arautzailean 15. oinarrian zehaztutako dokumentuak aurkeztu dituela, baita 18. oinarrian xedaturiko eskaintza ekonomikoaren % 4ko bermea ere.

Hori kontuan izanik, EBATZI DUT:

- 1) *Solasean* programa garatu, antolatu eta kudeatzeko zerbitzu kontratua Federación Topagunea Euskara Elkartearen Federazioari behin betiko esleitzea.
- 2) Federación Topagunea Euskara Elkartearen Federazioari jakinaraztea Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 101.2.a) artikuluan xedaturikoaren arabera, adjudikazioaren eraginkortasuna hamar egun naturalez etengo dela, jakinarazpen hau igortzen den egunetik kontatzen hasita.
- 3) Ebazpen hau Federación Topagunea Euskara Elkartearen Federazioari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

Eta behar den lekuan hala ager dadin eta ondorio egokiak sor ditzan, hauxe sinatu dut, sinadura digitalean agertzen den datan.

LEHENDAKARIAK

Leire Mitxelena Gamio

ZIURTATZEN DU, IDAZKARIAK

Nagore Madariaga Iriarte